

## **ONLINE BIDEZKO LAGUNTZA PERTSONALA**

Mutrikuko BHI ikastetxeko Yaomi taldea gara. Taldea lau kideak honako hauek gara: Aritz Olaizola, Nikolas Marianov, Ionela Iosif eta Izaro Agirrebengoa. Gure zerbitzua, oraindik Euskal Herrian sorturik ez dagoen ideietako bat da. Guk eskainiko duguna, “online” bidezko laguntza pertsonala izango da eta bertan irakasle-ikasle arteko harreman berriak sortuko dira. Gure proiektuaren helburua, ikastetxetik kanpo laguntza behar duten ikasleei laguntzea eta beraien beharrak asetzea izango da, hau da, guk beharra duten ikasle horiei laguntza gehigarri bat emango diegu, esaterako, ikasketetarako orduak planifikatzen.